

INGENIARITZA MEKANIKOKO GRADUA  
**GRADU AMAIERAKO LANA**

***AEROSORGAILU BATEN  
TRANSMISIOAREN DISEINU  
MEKANIKOA***

***3. DOKUMENTUA – KALKULUAK***

**Ikaslea:** Escribano Garro, Jon

**Zuzendaria:** Abasolo Bilbao, Mikel

**Ikasturtea:** 2017-2018

**Data:** Bilbon, 2018ko ekainak 29



### 3. DOKUMENTUA: KALKULUAK

3.1 HASIERAKO DATUAK.....	5
3.2 AEROSORGAILUAREN KOKAPENA .....	5
3.3 AEROSORGAILUAREN DISEINURAKO PARAMETROAK.....	5
3.3.1 ABIADURA ESPEZIFIKOA.....	5
3.3.2 POTENTZIA KOEFIZIENTEA .....	5
3.3.3 MOMENTU KOEFIZIENTEA .....	6
3.4 ERROTOREAREN DISEINUA .....	6
3.4.1 EKORKETA AZALERA.....	6
3.4.2 BIRAKETA ABIADURA .....	7
3.4.3 PALEN AUKERAKETA ETA ERROTOREAREN PISUA.....	7
3.4.4 TRANSMISIOAREN SARRERAN SORTUTAKO MOMENTUA.....	7
3.4.5 ERROTOREAREN EZAUGARRIEN LABURPENA .....	8
3.5 ABIADURA TXIKIKO ARDATZA .....	8
3.5.1 KARGAK ARDATZEAN .....	9
3.5.2 NEKERAKO KALKULUA: ASME KODIGOA.....	10
3.5.3 ERRODAMENDUAK .....	14
3.5.4 DEFLEXIOEN ARABERAKO DIMENTSIONAKETA .....	20
3.5.5 BIBRAZIOEN ARABERAKO DIMENTSIONAKETA .....	22
3.5.6 ERRETENTZIO ERAZTUNAK.....	22
3.5.7 TXABETEN KALKULUA .....	23
3.6 KUTXA BIDERKATZAILEA .....	25
3.6.1 TRANSMISIO ERLAZIOAK ETA IRTEERAKO ABIADURAK .....	25
3.6.2 LEHEN ETAPAREN ENGRANAIEEN KALKULUA .....	26
3.6.3 BIGARREN ETAPAREN ENGRANAIEEN KALKULUA .....	31
3.6.4 HIRUGARREN ETAPAREN ENGRANAIEEN KALKULUA .....	36
3.6.5 ETAPEN ARTEKO ARDATZEN KALKULUA .....	41
3.6.6 ARDATZ PLANETARIOAK .....	62
3.6.7 PLANETA ERAMAILEA .....	65
3.7 BALAZTA.....	66
3.7.1 BALAZTATZE INDARRAREN KALKULUA .....	67
3.7.2 BALAZTAREN AUKERAKETA .....	67
3.8 ABIADURA HANDIKO ARDATZA.....	68
3.8.1 NEKERAKO KALKULUA: ASME KODIGOA.....	68

---

3.8.2 ERRODAMENDUAK .....	70
3.8.3 DEFLEXIOEN ARABERAKO DIMENTSIONAKETA .....	71
3.8.4 BIBRAZIOEN ARABERAKO DIMENTSIONAKETA .....	73
3.8.5 ERRETENTZIO ERAZTUNAK.....	74
3.8.6 TXABETEN KALKULUA .....	75
3.9 ORIENTAZIO SISTEMAREN AUKERAKETA.....	76
3.9.1 KARGA JARDULEAK .....	76
3.9.2 KARGA KONBINAKETAK .....	77
3.9.3 ERRODAMENDUAREN AUKERAKETA: KARGA ESTATIKOKO KURBAK .....	79
3.9.4 BIZITZA BALIAGARRIAREN FROGAKETA .....	80
3.10 PALEN PAUSU ALDAKETAREN SISTEMA.....	81
3.10.1 KARGA JARDULEAK .....	82
3.10.2 KARGA KONBINAKETAK .....	83
3.10.3 ERRODAMENDUAREN AUKERAKETA: KARGA ESTATIKOKO KURBAK .....	84
3.10.4 BIZITZA BALIAGARRIAREN FROGAKETA .....	86

### 3.1 HASIERAKO DATUAK

- Potentzia nominala: 1 MW
- Haizealderako orientazioa
- Abiarazte abiadura: 3 m/s
- Gehienezko abiadura: 25 m/s
- Abiadura handiko ardatzaren biraketa abiadura: 1500 rpm

### 3.2 AEROSORGAILUAREN KOKAPENA

Aukeratutako kokapena Oiz mendiko haize-parkea izango da Berrizko (Bizkaia) herrian.

Haize-parke honetako haizearen abiadura nominala 9,5 m/s-koa da.

### 3.3 AEROSORGAILUAREN DISEINURAKO PARAMETROAK

Hurrengo atalean hiru paladun aerosorgailu eolikoaren diseinu parametro ezberdinak zehaztu eta kalkulatu dira. Parametro hauek taula eta irudi ezberdinen arabera definitzen dira, aerosorgailu motaren eta pala kopuruaren mendean egonez.

#### 3.3.1 ABIADURA ESPEZIFIKOA

Abiadura espezifikoa edo "tip speed ratio" ( $\lambda$ ), palaren muturreko abiadura linealaren eta haizearen abiaduraren arteko erlazioa bezala definitzen da. Hurrengo adierazpenak  $\lambda$ -ren balioa definitzen du:


$$\lambda = \frac{u}{v} = \frac{\Omega \cdot R}{v} = \frac{2 \cdot \pi \cdot n \cdot R}{60 \cdot v}$$

Kasu honetan, ardatz horizontaleko hiru paladun aerosorgailu bat tratatuko denez hurrengo balioa hartu da:

$$\lambda = 7$$

#### 3.3.2 POTENTZIA KOEFIZIENTEA

Potentzia koefizientearen balio maximoa Betz-en limitearen arabera zehaztu egiten da, eta turbina edo aerosorgailu eoliko motaren eta abiadura espezifikokoaren koefizientearen mendean egonez potentzia aldatzen da. 1. grafikoan argi ikusi daiteke:



1. grafikoa. Potentzia koefizientea errore motaren arabera.

Kasu honetan, diseinatuko den aerosorgailurako aukeratutako den errore mota hiru paladuna izango da. Kontuan izanda aukeratutako abiadura espezifikoko koefizientearen balorea ( $\lambda$ ) 7 dela, potentzia koefizientea hurrengo balioa izango du:

$$C_p = 0,5$$

### 3.3.3 MOMENTU KOEFIZIENTEA

Momentu koefizientea aerosorgailu eolikoa sortuko duen momentua zuzenki eragiten dion parametroa da. Potentzia koefizientearekin eta abiadura espezifikoarekin erlazionatzen duen adierazpena erabiliz, hurrengo momentu koefizientea kalkulatu da:

$$C_m = \frac{C_p}{\lambda} = \frac{0,5}{7} = 0,0714$$

## 3.4 ERROTOREAREN DISEINUA

Hurrengo atalean errotoarearen diseinurako beharrezkoak diren datuak kalkulatu dira.

### 3.4.1 EKORKETA AZALERA

Aerosorgailu eoliko honek 1 MW-ko potentzia nominala izango du 9,5 m/s-ko batzbesteko haizearen abiadurarekiko. Horregatik errotoarearen ekorketa azalera kalkulatu behar izango da potentzia hori haizearen abiadura nominal horretara lortzeko.

Kalkulua hurrengo ekuazioan ekorketa azalera argituz egingo da:

$$P = C_p \cdot \frac{1}{2} \cdot \rho \cdot A \cdot v^3$$

Ezagutzen diren datuak hurrengoak dira:

- $C_p = 0,5$
- $\rho = 1,23 \text{ [kg/m}^3\text{]}$
- $v = 9,5 \text{ [m/s]}$
- $P = 1 \text{ [MW]} = 1000000 \text{ [W]}$

Errotorearen ekorketa azalera hurrengoa izango da:

$$A = \frac{P}{\frac{1}{2} \cdot C_p \cdot \rho \cdot v^3} = \frac{1000000}{\frac{1}{2} \cdot 0,5 \cdot 1,23 \cdot 9,5^3} = 3793 \text{ [m}^2\text{]}$$

Zirkulu baten azalera hurrengoa dela jakinez:

$$A = \pi \cdot R^2$$

Erradioa bakanduz:

$$R = \sqrt{\frac{A}{\pi}} = \sqrt{\frac{3793}{\pi}} = 34,75 \text{ [m]}$$

Aerosorgailu eolikoaren errotorearen ekorketea azaleraren erradioa 34,75 m-koa denez, palek 34,75 m-ko luzeera izan beharko dute.

### 3.4.2 BIRAKETA ABIADURA

Aerosorgailurako aukeratutako abiadura espezifikoa ( $\lambda$ ) eta bere adierazpena ezagutuz:

$$\lambda = \frac{u}{v} = \frac{\Omega \cdot R}{v} = \frac{2 \cdot \pi \cdot n \cdot R}{60 \cdot v}$$

Errotorearen biraketa abiadura bakanduz:

$$n = \frac{60 \cdot \lambda \cdot v}{2 \cdot \pi \cdot R} = \frac{60 \cdot 7 \cdot 9,5}{2 \cdot \pi \cdot 34,75} = 18,27 \text{ [rpm]}$$

Aerosorgailuko errotorea eratzen duten palek 18,27 rpm-ko abiadura batera biratuko dute 9,5 m/s-ko haizearen batzbesteko abiadura nominalarekiko.

### 3.4.3 PALEN AUKERAKETA ETA ERROTOREAREN PISUA

Aukeratutako pala mota hurrengoa da:

- NACA 4415 profila.

Errotore osoaren pisua ezaugarri oso antzekoak duen aerosorgailu eoliko batetik lortu da, ekorketa azalera eta pala mota berdina duena, REPOWER enpresaren MM70 aerosorgailua hain zuzen ere:

$$m_{\text{errotore}} = m_{\text{abatza}} + 3 \cdot m_{\text{pala}} = 34000 \text{ [Kg]}$$

### 3.4.4 TRANSMISIOAREN SARRERAN SORTUTAKO MOMENTUA

Errotorea eratzen duten palen gainean eragindako haizearen indarreatatik, sarrerako momentu bat sortzen da. Haizeak bi indar mota sortzen ditu palen gainean, arraste indarra eta

euste indarra. Arraste indarra transmisioaren sarrera ardatzean indar axialaren eragilea da. Ordea, euste indarra, momentu tortsoarea sortzen duen indarra da.

Potentzia momentuaren eta biraketa abiaduraren arteko biderkadura da:

$$P = M \cdot \Omega$$

Momentua bakanduz eta ekuazioa garatuz:

$$M = \frac{P}{\Omega} = \frac{\frac{1}{2} \cdot C_m \cdot \rho \cdot A \cdot v^3}{v/R} = \frac{1}{2} \cdot C_m \cdot \rho \cdot A \cdot R \cdot v^2$$

$$M = \frac{1}{2} \cdot 0,0714 \cdot 1,23 \cdot 3793 \cdot 34,75 \cdot 9,5^2 = 522340 \text{ [N} \cdot \text{m]}$$

Momentu tortsoarea edo transmisioaren sarrerako momentuaren balorea hurrengoa izangoa:

$$M_{\text{TORTSOARE}} = T = 522340 \text{ [N} \cdot \text{m]} = 522,34 \text{ [KN} \cdot \text{m]}$$

### 3.4.5 ERROTOREAREN EZAUGARRIEN LABURPENA

Atal honetan errotorearen ezaugarri eta diseinurako parametroak laburtuko dira:


- Abiadura espezifikoa  $\rightarrow \lambda = 7$
- Potentzia koefizientea  $\rightarrow C_p = 0,5$
- Momentu koefizientea  $\rightarrow C_m = 0,0714$
- Errotorearen ekorketa azalera  $\rightarrow A = 3793 \text{ [m}^2\text{]}$
- Palen luzeera  $\rightarrow L = 34,75 \text{ [m]}$
- Errotorearen biraketa abiadura  $\rightarrow n = 18,27 \text{ [rpm]}$
- Errotorearen pisua  $\rightarrow m_{\text{errotore}} = 34000 \text{ [Kg]}$
- Transmisioaren sarreran sortutako momentu tortsoarea  $\rightarrow T = 522,34 \text{ [KN} \cdot \text{m]}$

### 3.5 ABIADURA TXIKIKO ARDATZA

Abiadura txikiko ardatza transmisiorako sarrera ardatza da, hau da, errotorearekin elkartuta dagoen ardatza da. Ardatz honek sarrerako momentua jasotzen du, hots, haizeagatiko paletan sortutako momentua. Errotorean sortutako potentzia kutxa biderkatzailera transmititzeko arduraduna izango da, non biraketa abiadura handitu egingo den abiadura handiko ardatzera transmititzeko. Abiadura handiko ardatza energia elektrikoa sortuko duen motor elektrikoarekin elkartuta egongo da.

Lehenik eta behin abiadura txikiko ardatzaren diseinuaren eskema definitu behar da. Kasu honetan diseinu eskema oso arrunta aukeratu da, ardatzeko zati bat hegalean utziz. Aipaturiko hegalararen muturrean aerosorgailuko errotorea jarrita egongo litzateke. Bestalde, bi euskarriko antolamendu bat aukeratu da, zeinetako batek indar axiala xurgatuko duen. 1 irudian diseinua ikus daiteke:






1. irudia. Abiadura txikiko ardatza.

Bi euskarrien ezaugarriak aurrerago zehaztuko dira dagokion atalean.

### 3.5.1 KARGAK ARDATZEAN

Abiadura txikiko ardatzak indar ezberdinak jasan behar izango ditu. 2. irudian indarrak ardatzaren gainean ikus daitezke:



2. irudia. Kargak abiadura txikiko ardatzearen gain.

#### INDAR AXIALA

Hurrengo adierazpenaren bitartez indaraxialaren kalkulua egingo da:

$$F_{\text{axiala}} = \frac{3}{2} \cdot \frac{\lambda \cdot T}{L} = \frac{3}{2} \cdot \frac{7 \cdot 522,34}{34,75} = 157,83 \text{ [KN]}$$


#### INDAR BERTIKALA

Indar bertikala errotorearen multzoko masari zor zaio, hots, hiru paletako masei eta abatzeko masari. Indar bertikalaren kalkulurako, UNE-EN 61400-2 (2006) araudia jarraituz, hurrengo adierazpena erabiliko da:

$$F_{\text{bertikala}} = m_{\text{errotore}} \cdot g = 34000 \cdot 9,81 = 333540 \text{ [N]} = 333,54 \text{ [KN]}$$

#### MOMENTU MAKURTZAILEA

Abiadura txikiko ardatzean sortutako momentu makurtzailea lehen kalkulaturako indar bertikalagatik sortzen da. 3. irudian ikus daitekeenez gero, momentu makurtzailearen balio maximoa A sailean izango da:



3. irudia. Abiadura txikiko ardatzaren gaineko momentu makurtzaileen diagrama.


$$M_{\text{makurtzailea}} = F_{\text{bertikala}} \cdot x = 335,54 \cdot 0,4 = 133,416 \text{ [KN} \cdot \text{m]}$$

### MOMENTU TORTSOREA

Abiadura txikiko ardatzean sortutako momentu tortsoarea, errore eolikoan haizeagatik sortutako momentua da, jada eranskin honetako 3.4.5 atalean kalkulatu dagoena. Momentu tortsoarea hurrengo balioa izango du:

$$M_{\text{TORTSOREA}} = T = 522,34 \text{ [KN} \cdot \text{m]}$$

4. irudian momentu tortsoarearen diagrama ikus daiteke:



4. irudia. Abiadura txikiko ardatzaren gaineko momentu tortsoarearen diagrama.

### 3.5.2 NEKERAKO KALKULUA: ASME KODIGOA

Trasmisioaren sarrera ardatzak jadanik kalkulatuak kargak jasan behar ditu. Karga hauek denboran zehar txandakatu egingo dira, hau da, ez dira karga iraunkorrak. Horregatik, ardatza ASME kodearen adierazpenen bitartez nekerak diseinatuko da. Metodo hau Tresca-ren akats estatikoaren teoriarin oinarrituta dago.

Jasan behar duen momentu tortsoarea nahiko handia denez gero eta momentu makurtzaileekin konbinatu behar denez ere, lodiera handiko profil tubularra erabiliko da, ardatz trinkoa erabiltzeko izango lukeen pisua txikiagotzeko asmoz. Hartarako profil tubularreko katalogo bat erabiliko da.

ASME kodearen adierazpena nekerako kalkulua egiteko hurrengoa da:

$$\tau_{\max} = \frac{r}{J} \cdot \sqrt{(C_m \cdot M)^2 + (C_t \cdot T)^2} < \tau_{yp}$$

Handitze-koefizienteen balioak hurrengo taulatik lortzen dira, kargen mendean egonez:

	$C_m$	$C_t$
<b>EJES FIJOS:</b>		
Carga aplicada gradualmente (constante)	1.0	1.0
Carga aplicada repentinamente	1.5-2.0	1.5-2.0
<b>EJES GIRATORIOS:</b>		
Carga aplicada gradualmente (constante)	1.5	1.0
Carga aplicada repentinamente, sólo pequeños impactos	1.5-2.0	1.0-1.5
Carga aplicada repentinamente, grandes impactos	2.0-3.0	1.5-3.0

1. taula. ASME handitze koefizienteak.

Kasu honetan, ardatza birakaria da, gradualki emandako kargekin eta inpakturik gabe, beraz hurrengo handitze-koefizienteak lortzen dira:

- $C_m = 1,5$
- $C_t = 1$

#### AUKERATUTAKO MATERIALA

Hurrengo taulan aukeratutako materialaren ezaugarriak ikusi daitezke:

Materiala	DIN Izendapena	Tratamendua	Trakzio erresist. $\sigma_B$	Isurpen limite minimoa $\sigma_s$	Brinell gogortasuna DB	Neke erresist. flexio alternatiboan $\sigma_b \approx$	Esfortzu onarg. abiadura medio eta altuetan $\sigma_b \approx$
			kg/mm <sup>2</sup>	kg/mm <sup>2</sup>	kg/mm <sup>2</sup>	kg/mm <sup>2</sup>	kg/cm <sup>2</sup>
Burdinurtu grisa	GG-18		$\geq 18$		150-170	$\pm 8,5$	350-450
	GG-22		$\geq 22$		180-220	$\pm 11$	450-550
	GG-26		$\geq 26$		200-220	$\pm 12$	550-650
Altzairu moldatua	GS-45	suber.	$\geq 45$	22	125-160	$\pm 20$	650-750
	GS-52	suber.	$\geq 52$	25	145-190	$\pm 22$	750-900
Makinentzak o altzairu aleatu gabea	St 50		50-60	27	145-174	$\pm 24$	850-1100
	St 60		60-70	30	174-205	$\pm 28$	1000-1250
	St 70		70-85	35	205-248	$\pm 33$	1200-1400
Altzairu zementatua aleatu gabea	Ck 15	tenp.	50-65 <sup>1)</sup>	30	600 <sup>2)</sup>	$\pm 25$	1000-1250
Altzairu hobetua aleatu gabea	Ck 45	hob.	65-80	40	190-230	$\pm 30$	1100-1300
	Ck 60	hob.	75-90	49	217-265	$\pm 35$	1300-1500
Altzairu manganeso hobetua	30Mn5	hob.	80-95	55	230-270	$\pm 38$	1500-2000
	37MnSi5	hob.	90-105	65	260-300	$\pm 45$	2000-3000
	42MnV7	hob.	100-120	80	290-350	$\pm 50$	3000-4000
Altzairu zementatua aleatua	16MnCr5	tenp.	80-110	60		$\pm 43$	1900-3000
	20MnCr5	tenp.	100-130	70		$\pm 47$	2200-3400
	15CrNi6	tenp.	90-120 <sup>3)</sup>	65	600 <sup>2)</sup>	$\pm 45$	2000-3000
	18CrNi8	tenp.	120-145	80		$\pm 50$	3000-4000
	14NiCrMo13-4	tenp.	105-130	100		$\pm 50$	3000-4000
	34Cr4	tenp.	130-155 <sup>3)</sup>	100	380-450		
Altzairu hobetua aleatua	41Cr4	tenp.	155-180 <sup>3)</sup>	130	450-500		
	50CrV4	tenp.	150-175 <sup>4)</sup>	130	430-495	$\pm 50$	3000-4000
	50CrMo4	tenp.	150-174 <sup>4)</sup>	130	430-495		
	51CrMoV4	tenp.	140-170	120	430-495		

2. taula. Aukeratutako materialaren ezaugarriak.

Aukeratutako materiala altzairu hobetua aleatua (34Cr4) da, eta erabiliko diren ezaugarriak hurrengoak dira:

- Apurketa tentsioa  $\rightarrow \sigma_u = 130 \text{ [kg/mm}^2\text{]} = 1274,86 \text{ [MPa]}$
- Fluentzia tentsioa  $\rightarrow \sigma_{yp} = 100 \text{ [kg/mm}^2\text{]} = 980,66 \text{ [MPa]}$
- Brinell gogotasuna  $\rightarrow \text{BHN} = 380 \text{ [kg/mm}^2\text{]}$

### SEGURTASUN KOEFIZIENTEA

Segurtasun koefizientea UNE-EN 61400-2:2006 arauditik lortzen da. Aipaturiko araudian, materialetarako segurtasun koefiziente partzialak lor daitezke nekearen aurka edo haustura mugaren aurkako erresistentziaren arabera. Araudiaren 3. taulan aipaturiko balioak ikus daitezke:

Caracterización del material	Resistencia a la fatiga, $\gamma_m$	Resistencia a limite de rotura, $\gamma_m$
Caracterización completa	1,25*	1,1
Caracterización mínima	10,0*	3,0

\* El factor se aplica a la resistencia a fatiga medida del material.  
\* El factor se aplica a la resistencia límite de rotura medida del material.

3. taula. Segurtasun koefizienteak UNE-EN 61400-2: 2006 arauaren arabera.

### DIMENSIONAKETA

Profilen aukeraketarako profil tubularreko katalogo bat erabiliko da, kasu honetan, Grupo Almesa-ren erabilera mekanikoetarako soldadurarik gabeko altzairu profilen katalogoa zehazki erabili da. 4. taulan kanpoko diametro desberdinak eta lodierak ikus daitezke:

T Espesor de pared															Dimensiones en milímetros			
17,5	20	22,5	25	28	30	32	36	40	45	50	55	60	65	70	80	90	100	D Diámetro exterior
																		26,9
																		33,7
																		35
																		38
																		40
																		42,4
																		44,5
																		46,3
																		51
																		54
																		57
																		60,3
																		63,5
																		70
																		73
																		76,1
																		82,5
																		88,9
																		101,6
																		108
																		114,3
																		121
																		127
																		133
																		138,7
																		141,3
																		152,4
																		159
																		168,3
																		177,8
																		193,7
																		203
																		219,1
																		229
																		244,5
																		273
																		298,5
																		323,9
																		355,6
																		368
																		406,4
																		419
																		457
																		508
																		521
																		559
																		610

4. taula. Grupo Almesa-ren erabilera mekanikoko profil tubularreko katalogoa.

Lehenik eta behin, nekerako segurtasun koefizientea aplikatuko da aukeratutako materialaren erresistentziari, honen ostean, kalkulua egin ahal izateko ASME kodearen arabera:

$$\sigma_{adm} = \frac{\sigma_{yp}}{CS} = \frac{980,66}{1,25} = 784,53 \text{ [MPa]}$$

$$\tau_{adm} = \frac{\tau_{yp}}{CS} = \frac{980,66/2}{1,25} = 392,26 \text{ [MPa]}$$

Behin materialaren isurpen tentsioen balioak segurtasun koefizientearen arabera lortuta, kanpoko diametroa dagokion lodierarekin aukeratuko da eta nekera egiaztatuko da, kargak jasaten duen diametroa lortu arte.

#### Lehen kalkulua:

- $D_{ext} = 368 \text{ [mm]}$
- $t = 90 \text{ [mm]}$
- $D_{int} = 368 \text{ [mm]}$

$$\tau_{max} = \frac{184}{\frac{\pi}{2} \cdot (184^4 - 94^4)} \cdot \sqrt{(1,5 \cdot 133,416 \cdot 10^6)^2 + (1 \cdot 522,34 \cdot 10^6)^2} < \tau_{yp}$$

$$\tau_{max} = 61,34 \text{ [MPa]} \ll \tau_{adm} = 392,66 \text{ [MPa]}$$

Profil honek eusten du, beraz bilatzen jarraituko da eusten duen diametro txikiago bat topatu arte.

#### Bigarren kalkulua:

- $D_{ext} = 193,7 \text{ [mm]}$
- $t = 55 \text{ [mm]}$
- $D_{int} = 83,7 \text{ [mm]}$

$$\tau_{max} = \frac{96,85}{\frac{\pi}{2} \cdot (96,85^4 - 41,85^4)} \cdot \sqrt{(1,5 \cdot 133,416 \cdot 10^6)^2 + (1 \cdot 522,34 \cdot 10^6)^2} < \tau_{yp}$$

$$\tau_{max} = 406,15 \text{ [MPa]} \gg \tau_{adm} = 392,66 \text{ [MPa]}$$

Profil honek ez du nekerako kargak behar beste eusten.

#### Hirugarren kalkulua:

- $D_{ext} = 203 \text{ [mm]}$
- $t = 65 \text{ [mm]}$
- $D_{int} = 73 \text{ [mm]}$


$$\tau_{max} = \frac{101,5}{\frac{\pi}{2} \cdot (101,5^4 - 36,5^4)} \cdot \sqrt{(1,5 \cdot 133,416 \cdot 10^6)^2 + (1 \cdot 522,34 \cdot 10^6)^2} < \tau_{yp}$$

$$\tau_{\max} = 346,34 \text{ [MPa]} < \tau_{\text{adm}} = 392,66 \text{ [MPa]}$$

Profil honek nekerako karga eusten du, beraz, hau abiadura txikiko ardatzaren diametroa izango da.

### 3.5.3 ERRODAMENDUAK


Errodamenduak ardatzak izango dituen euskarriak dira. Kasu honetan, jada lehen aipatu den bezala, ardatza bi euskarritz osatuta egongo da, hots, bi errodamendu. Kasu honetan arrabol konikodun errodamendu bat eta arrabol zilindrikodun beste bat aukeratu dira. Arrabol konikodun errodamendua indar axiala xurgatzeko arduraduna izango da eta arrabol zilindrikodun errodamenduak karga erradiala jasan behar izango du soilik. 5. irudian ardatzaren antolamendua ikus daiteke:



5. irudia. A eta B errodamenduen kokapena.

#### ERREAKZIOEN KALKULUA:

Behin diseinuaren eskema aukeratuta, errodamenduak kalkulatu eta aukeratu ahal izateko, lehen pausua jasan behar izango dituzten indarrak erradialak eta axialak kalkulatzeko izango da. Ikusi 6. irudia:



6. irudia. Euskarrietako erreakzioak.

Horretarako X ardatzeko indarren batukaria egingo da:

$$\Sigma F_x = 0 \rightarrow F_{\text{axiala}} = H_A \rightarrow H_A = 157,83 \text{ [KN]}$$

Momentuen batukaria A puntuan eginez:

$$\Sigma M_A = 0 \rightarrow F_{\text{bertikala}} \cdot 0,4 = V_B \cdot 0,8 \rightarrow V_B = \frac{333,54 \cdot 0,4}{0,8} = 166,77 \text{ [KN]}$$

Azkenik, Y ardatzeko indarren batukaria eginez:

$$\Sigma F_Y = 0 \rightarrow F_{\text{bertikala}} + V_B = V_A \rightarrow V_A = 333,54 + 166,77 = 500,31 \text{ [KN]}$$

#### BIZITZA NOMINALAREN KALKULUA (L10)

Kasu honetan L bizitzarako 25 urteko iraupena eta %65-ko denbora funtzionatzen egongo dela suposatu da:

$$L = 0,65 \cdot 25[\text{urte}] \frac{365[\text{egun}]}{1[\text{urte}]} \frac{24[\text{h}]}{1[\text{egun}]} \frac{60[\text{min}]}{1[\text{h}]} \frac{18,27[\text{bira}]}{1[\text{min}]} = 156044070 \text{ [bira]}$$

$$L = 156 \cdot 10^6 \text{ [bira]}$$

Bestalde, errodamenduen fidagarritasuna hurrengo eran kalkulatzen da:

$$R_{\text{grupo}} = 0,95$$

$$R = \sqrt{R_{\text{grupo}}} = \sqrt{0,95} = 0,975$$

Arrabol konikodun errodamenduaren  $L_{10}$  (A):

$$L_{10} = \frac{L}{4,48 \cdot \left[\ln\left(\frac{1}{R}\right)\right]^{1/1,5}} = \frac{156}{4,48 \cdot \left[\ln\left(\frac{1}{0,975}\right)\right]^{1/1,5}} = 403,86 \text{ [milioi bira]}$$

Arrabol zilindrikodun errodamenduaren  $L_{10}$  (B):

$$L_{10} = \frac{L}{0,02 + 4,439 \cdot \left[\ln\left(\frac{1}{R}\right)\right]^{1/1,483}} = \frac{156}{0,02 + 4,439 \cdot \left[\ln\left(\frac{1}{0,975}\right)\right]^{1/1,483}} \\ = 397,82 \text{ [milioi bira]}$$

#### ARRABOL KONIKODUN ERRODAMENDUAREN KALKULUA (A)

##### **Errenkada bakarreko errodamendu konikoak**

Kalkulu honetarako TIMKEN katalogotik ateratako adierazpenak erabiliko dira. 5. taulan hipotesiak ikus daitezke:

Design	Thrust Condition	Axial Load	Dynamic Equivalent Radial Load
	$\frac{0,47 F_{rA}}{k_A} \leq \frac{0,47 F_{rB}}{k_B} + F_{ae}$	$F_{aA} = \frac{0,47 F_{rB}}{k_B} + F_{ae}$ $F_{aB} = \frac{0,47 F_{rB}}{k_B}$	$P_A = 0,4 F_{rA} + k_A F_{aA}^{(1)}$ $P_B = F_{rB}$
	$\frac{0,47 F_{rA}}{k_A} > \frac{0,47 F_{rB}}{k_B} + F_{ae}$	$F_{aA} = \frac{0,47 F_{rA}}{k_A}$ $F_{aB} = \frac{0,47 F_{rA}}{k_A} - F_{ae}$	$P_A = F_{rA}$ $P_B = 0,4 F_{rB} + k_B F_{aB}^{(1)}$

5. taula. Errenkada bakarrek Timken errodamenduen kalkulurako hipotesiak.

Lehenik eta behin, bulkada baldintza kalkulatu da:

$$\frac{0,47 \cdot F_{rA}}{k_A} = \frac{0,47 \cdot 500,31}{1,5} = 156,76 \text{ [KN]}$$

$$\frac{0,47 \cdot F_{rB}}{k_B} - m \cdot F_{ae} = \frac{0,47 \cdot 166,77}{1,5} - (-1) \cdot 157,83 = 210,08 \text{ [KN]}$$

Lehen hipotesia bete egingo da:

$$\frac{0,47 \cdot F_{rA}}{k_A} \leq \frac{0,47 \cdot F_{rB}}{k_B} - m \cdot F_{ae}$$

Bulkada kargen kalkulua:

$$F_{aA} = \frac{0,47 \cdot F_{rB}}{k_B} - m \cdot F_{ae} = \frac{0,47 \cdot 166,77}{1,5} - (-1) \cdot 157,83 = 210,08 \text{ [KN]}$$

$$F_{aB} = \frac{0,47 \cdot F_{rB}}{k_B} = \frac{0,47 \cdot 166,77}{1,5} = 52,25 \text{ [KN]}$$

Karga dinamiko erradial baliokideen kalkulua:

$$P_A = 0,4 \cdot F_{rA} + k_A \cdot F_{aA} = 0,4 \cdot 500,31 + 1,5 \cdot 210,08 = 515,25 \text{ [KN]}$$

$$P_B = F_{rB} = 166,77 \text{ [KN]}$$

A puntuko karga erradial baliokidea karga erradiala baino handiagoa da,  $P_A$  erabiliko denagatik. TIMKEN katalogoaren arabera ahalmen dinamikoaren kalkulua:

$$C \cdot 90^{1/a} = P_A \cdot L_{10}^{1/a}$$

Arrabol konikodun errodamendu bat izateagatik  $a=10/3$  koefizientea izango da. Ahalmena hurrengoa izango litzateke:





$$C = \frac{P_A \cdot L_{10}^{1/a}}{90^{1/a}} = \frac{515,25 \cdot 403,86^{3/10}}{90^{3/10}} = 808,38 \text{ [KN]}$$

Lortutako ahalmenaren balioa ezin da jasan errenkada bakarraren errodamenduekin, beraz, ahalmen berria TIMKEN katalogoko errenkada bikoitzeko errodamendu konikoen kalkuluen arabera kalkulatu behar izango da.

### Errenkada bikoitzeko errodamendu konikoak

Kalkuluak TIMKEN-a katalogoko 6. taulari jarraituz egingo dira :

Design – Similar Bearing Series	Thrust Condition	Dynamic Equivalent Radial Load
	$F_{ae} \leq \frac{0.6 F_{rAB}}{K}$	$P_A = 0.5 F_{rAB} + 0.83 K_A F_{ae}$ $P_B = 0.5 F_{rAB} - 0.83 K_A F_{ae}$
	$F_{ae} > \frac{0.6 F_{rAB}}{K}$	$P_A = 0.4 F_{rAB} + K_A F_{ae}$ $P_B = 0$

6. taula. Errenkada bikoitzeko Timken errodamenduen kalkulurako hipotesiak.

Lehenik eta behin, bulkada baldintza kalkulatu da:

$$F_{ae} = 166,77 \text{ [KN]}$$

$$\frac{0,6 \cdot F_{rAB}}{k} = \frac{0,6 \cdot 500,31}{0,62} = 484,18 \text{ [KN]}$$

Lehen hipotesia bete egingo da:

$$F_{ae} \leq \frac{0,6 \cdot F_{rAB}}{k}$$


Ikus daitekeenez gero, lehen hipotesiari jarraituz kalkulua egingo da. Karga dinamiko erradial baliokidearen kalkulua:

$$P_A = 0,5 \cdot F_{rA} + 0,83 \cdot k_A \cdot F_{ae} = 0,5 \cdot 500,31 + 0,83 \cdot 0,61 \cdot 166,77 = 334,6 \text{ [KN]}$$

Azkenik ahalmenaren kalkulua:

$$C = \frac{P_A \cdot L_{10}^{1/a}}{90^{1/a}} = \frac{334,6 \cdot 403,86^{3/10}}{90^{3/10}} = 524,95 \text{ [KN]}$$

Kasu honetan, lehen kalkulatuako ardatzaren diametroa bezalako barruko diametroa duten errodamenduak ezin zituzten karga hain garaiak jasan. Horregatik aukeratutako errodamendua egiaztatuko da eta kargak jasatekotan, ardatzaren diametro berria aukeratu da.



Bearing Dimensions				Load Ratings							
Bore d	O.D. D	Width T	Double Outer Ring Width C	Dynamic <sup>(1)</sup>		Factors <sup>(2)</sup>		Dynamic <sup>(2)</sup>		Factors <sup>(2)</sup>	
mm in.	mm in.	mm in.	mm in.	C <sub>102</sub>	e	Y <sub>1</sub>	Y <sub>2</sub>	C <sub>90</sub>	C <sub>100</sub>	C <sub>502</sub>	K
N lbf	N lbf	N lbf	N lbf								
228.600 9.0000	355.600 14.0000	152.400 6.0000	111.125 4.3750	1470000 330000	0.33	2.04	3.04	219000 49100	124000 27800	381000 85600	1.77
228.600 9.0000	355.600 14.0000	152.400 6.0000	114.300 4.5000	1660000 372000	0.47	1.43	2.12	247000 55400	200000 44900	429000 96500	1.24
228.600 9.0000	355.600 14.0000	158.750 6.2500	117.475 4.6250	1470000 330000	0.33	2.04	3.04	219000 49100	124000 27800	381000 85600	1.77
228.600 9.0000	358.775 14.1250	152.400 6.0000	117.475 4.6250	1590000 358000	0.33	2.03	3.02	237000 53300	135000 30300	413000 92800	1.76
228.600 9.0000	400.050 15.7500	187.325 7.3750	136.525 5.3750	1960000 440000	0.44	1.54	2.29	291000 65500	219000 49300	507000 114000	1.33
228.600 9.0000	425.450 16.7500	209.550 8.2500	158.750 6.2500	2960000 665000	0.33	2.03	3.02	440000 99000	251000 56400	767000 172000	1.76
228.600 9.0000	488.950 19.2500	254.000 10.0000	152.400 6.0000	3910000 879000	0.94	0.72	1.07	582000 131000	934000 210000	1010000 228000	0.62
231.775	358.775	152.400	117.475	1590000	0.33	2.03	3.02	237000	135000	413000	1.76

7. taula. TDO motako errenkada bikoitzeko arrabol konikodun Timken errodamendua.

Aukeratutako errodamenduen ahalmena:

$$C = 1010 \text{ [kN]} \gg 524,95 \text{ [kN]}$$

Aukeratutako errodamendua aipaturiko ahalmenaren barruan dagoela ikusten da. Behin egiaztatuta eta behin errodamendua aukeratuta ardatzaren diametroaren frogaketak ASME kodearen arabera nekerak egingo du. Kasu honetan 229 mm-ko kanpoko diametroa aukeratuko da eta 228,6mm-ko kanpo diametroa lortu arte mekanizatutako ardatzak kargak jasaten dituen kalkulatu da.

Ardatzaren nekerako kalkulua:

- $D_{\text{ext}} = 228,6 \text{ [mm]}$
- $t = 70 \text{ [mm]}$
- $D_{\text{int}} = 89 \text{ [mm]}$

$$\tau_{\text{max}} = \frac{114,3}{\frac{\pi}{2} \cdot (114,3^4 - 44,5^4)} \cdot \sqrt{(1,5 \cdot 133,416 \cdot 10^6)^2 + (1 \cdot 522,34 \cdot 10^6)^2} < \tau_{\text{yp}}$$

$$\tau_{\text{max}} = 244,08 \text{ [MPa]} \gg \tau_{\text{adm}} = 392,66 \text{ [MPa]}$$


Abiadura txikiko ardatzak nekerako kargak jasaten ditu, horregatik, aipaturiko kanpoko diametroa eta barrukoa behin betikoak izango dira.

ARRABOL ZILINDRIKODUN ERRODAMENDUAREN KALKULUA (B)**Errenkada bakarreko errodamendu zilindrikoak**

Arrabol zilindrikoko errodamenduek karga erradialak xurga ditzakete soilik, baina kasu honetan A errodamenduak (arrabol konikoek) indar axiala xurgatzen duenez gero, erabili daitezke arazo barik. TIMKEN katalogoaren arabera ahalmenaren kalkulua hurrengoa da:

$$C = F_{rB} \cdot L_{10}^{1/a} = 166,77 \cdot 403,86^{3/10} = 1009,22 \text{ [KN]}$$

Behin ahalmena kalkulaturik izanda, katalogoko errodamendu bat aukeratuko da. 8 taulan aukeratutako errodamendua ikus daiteke:



Bearing Dimensions				Load Rating		Bearing Part Number <sup>(2)</sup>	Mounting Data				s <sup>(3)</sup>	Geo- metry Factor C <sub>s</sub>	Thermal Speed Ratings		Weight
Bore d	O.D. D	Width B	DUR/DOR F/E	Static C <sub>0</sub>	Dynamic C <sub>10</sub> <sup>(1)</sup>		Chamfer		Backing Diameter				Oil	Grease	
mm in.	mm in.	mm in.	mm in.	kN lbf.	kN lbf.		r <sub>min</sub> mm in.	r <sub>max</sub> mm in.	d <sub>s</sub> mm in.	D <sub>s</sub> mm in.					
220.000 8.6614	340.000 13.3858	90.000 3.5433	250.000 9.8425	765 172000	1210 272000	NU3044MA	3.0 0.12	3.0 0.12	242.5 9.55	314.0 12.36	8.4 0.33	0.163	1100	940	30.70 67.60
220.000 8.6614	400.000 15.7480	65.000 2.5591	268.000 10.5512	1290 290000	1040 233000	NU244EMA	4.0 0.16	4.0 0.16	261.2 10.28	358.0 14.09	4.0 0.16	0.148	1500	1400	36.90 81.20
220.000 8.6614	400.000 15.7480	65.000 2.5591	268.000 10.5512	1290 290000	1040 233000	NJ244EMA	4.0 0.16	4.0 0.16	261.2 10.28	358.0 14.09	4.0 0.16	0.148	1500	1400	37.60 82.70
220.000 8.6614	400.000 15.7480	108.000 4.2520	259.000 10.1969	2370 533000	1820 409000	NU2244EMA	4.0 0.16	4.0 0.16	250.7 9.87	363.0 14.29	7.3 0.29	0.165	1000	970	60.80 133.60

8. taula. Aukeratutako arrabol zilindrikodun Timken errodamendua.

$$C = 1820 \text{ [KN]} \gg 1009,22 \text{ [KN]}$$

Ikus daitekeenez, errodamenduaren barruko diametroa dimentsionatutako ardatzaren kanpoko bano txikiagoa da. Horregatik B muturra nekerak kalkulatu behar izango da mekanizatutako 220 mm-ko kanpo diametroa lortu arte, mutur honetan errodamendua jarrita egonez.

Ardatzaren nekerako kalkulua:

- $D_{\text{ext}} = 220 \text{ [mm]}$
- $t = 70 \text{ [mm]}$
- $D_{\text{int}} = 89 \text{ [mm]}$


$$\tau_{\text{max}} = \frac{110}{\frac{\pi}{2} \cdot (110^4 - 44,5^4)} \cdot \sqrt{(1,5 \cdot 0)^2 + (1 \cdot 522,34 \cdot 10^6)^2} < \tau_{\text{yp}}$$

$$\tau_{\text{max}} = 256,72 \text{ [MPa]} \gg \tau_{\text{adm}} = 392,66 \text{ [MPa]}$$

Mekanizatutako B muturrak nekerako kargak jasaten ditu, jasandako tentsioa erabilitako materialerako onargarria baino txikiagoa delako.


### 3.5.4 DEFLEXIOEN ARABERAKO DIMENTSIONAKETA

Abiadura txikiko ardatzaren gainean dagozan indarrak 7. irudian ikus daitezke:




7. irudia. Abiadura txikiko ardatzaren gaineko indarrak.

Bestalde, 8. irudian momentu makurtzaileen diagrama ikus daiteke:



8. irudia. Momentu makurtzaileen diagrama.

Lehenik eta behin, ardatzaren deformatu hurbildua marrazten da eta puntuen tangentsiak deflexioen kalkulurako adierazten dira. 9. irudian deformatua eta beharrezko puntuetako ukitzailak ikus ditzake:



9. irudia. Abiadura txikiko ardatzaren deformatua eta Mohr-en teorema.

Lehenik eta behin, A eta B sekzioko inertzia momentuak kalkulatu dira:

- A - Arrabol konikodun errodamendua:

$$r_1 = \frac{D_1}{2} = \frac{89}{2} = 44,5 \text{ [mm]}$$

$$r_2 = \frac{D_2}{2} = \frac{228,6}{2} = 114,3 \text{ [mm]}$$

$$I_z = \frac{\pi}{2} (114,3^4 - 44,5^4) = 261945224 \text{ [mm}^4\text{]}$$

- B - Arrabol zilindrikodun errodamendua:

$$r_1 = \frac{D_1}{2} = \frac{89}{2} = 44,5 \text{ [mm]}$$

$$r_2 = \frac{D_2}{2} = \frac{220}{2} = 110 \text{ [mm]}$$

$$I_z = \frac{\pi}{2} (110^4 - 44,5^4) = 223820585,1 \text{ [mm}^4\text{]}$$

Erabilitako materialaren Young-en modulua hurrengoa izango da:

$$E = 210 \text{ [GPa]} = 210000 \text{ [MPa]}$$

Datu hauekin, A eta B sekzioko biraketa angeluak kalkulatu dira.

- A sekzioko biraketaren kalkulua:

$$y_{B/A} = \frac{A_2 \cdot x_1}{E \cdot I_z} = \frac{133,416 \cdot 10^6 \cdot 800 \cdot \frac{2}{3} \cdot 800}{210000 \cdot 261945224} = 0,5174 \text{ [mm]}$$

$$\vartheta_A = \frac{y_{B/A}}{L_2} = \frac{0,5174}{800} = 0,000646 \text{ [rad]}$$

- B sekzioko biraketaren kalkulua:

$$y_{A/B} = \frac{A_2 \cdot x_2}{E \cdot I_z} = \frac{133,416 \cdot 10^6 \cdot 800 \cdot \frac{1}{3} \cdot 800}{210000 \cdot 223820585,1} = 0,3027 \text{ [mm]}$$

$$\vartheta_B = \frac{y_{A/B}}{L_2} = \frac{0,3027}{800} = 0,000378 \text{ [rad]}$$

Behin A eta B errodamenduak joango diren muturretan biraketa angelua kalkulatu, hurbileko balio onargarriekin konparatu dira errodamendu mota bakoitzerako. Ikusi 9. taula:

	PENDIENTE MAXIMA ADMISIBLE ( $\vartheta_{max}$ )
Rodamiento de rodillos cónicos	0.0005-0.0012 rad
Rodamiento de rodillos cilíndricos	0.0008-0.0012 rad
Rodamiento de bolas de ranura profunda	0.001-0.003 rad
Rodamiento de bolas de contacto angular	0.026-0.052 rad

9. taula. Errodamenduentzako balore onargarri maximoak.

A muturreko arrabol konikodun errodamendurako balio maximo onargarrien arabera frogaketa:

$$\vartheta_A = 0,000646 \text{ [rad]} \ll \vartheta_{max} = 0,0012 \text{ [rad]}$$

B muturreko arrabol zilindrikodun errodamendurako balio maximo onargarrien arabera frogaketa:

$$\vartheta_B = 0,000378 \text{ [rad]} \ll \vartheta_{\max} = 0,0012 \text{ [rad]}$$

Egiaza daitekeenez gero, abiadura txikiko ardatzeko A eta B errodamenduak balio onargarrien barruan daude.

### 3.5.5 BIBRAZIOEN ARABERAKO DIMENTSIONAKETA

Behin ardatza nekera dimentsionatuta egonez eta deflexioak egiaztatuz, ardatzaren abiadura kritikoaren kalkulua egingo da. Kasu honetan ardatzaren gainean muntatutako elementu bakarra den aerosorgailuaren errotoea da, zeinen masa 34.000 kg-koa den. Elementu bakarra dagoenez gero, adierazpena halako modura sinplifikatzen da:

$$w_{\text{kritikoa}} = \sqrt{\frac{g}{y_i}}$$

Kalkulua honetarako deflexio maximoa behar izango da, kasu honetan C sekzioko deflexioa:

$$y_{C'} = \vartheta_A \cdot L_1 = 0,000646 \cdot 400 = 0,2584 \text{ [mm]}$$

$$y_{C''} = \frac{A_1 \cdot x_4}{E \cdot I_z} = \frac{133,416 \cdot 10^6 \cdot 400}{2} \cdot \frac{2}{3} \cdot 400}{210000 \cdot 261945224} = 0,1296 \text{ [mm]}$$

$$y_C = y_{C'} + y_{C''} = 0,2584 + 0,1296 = 0,388 \text{ [mm]}$$

Abiadura kritikoa:


$$w_{\text{kritikoa}} = \sqrt{\frac{g}{y_i}} = \sqrt{\frac{9,81}{0,388 \cdot 10^{-3}}} = 159 \left[ \frac{\text{rad}}{\text{s}} \right] = 1518,41 \text{ [rpm]}$$

$$w_{\text{kritikoa}} = 1518,41 \text{ [rpm]} \gg w_{\text{ardatza}} = 18,27 \text{ [rpm]}$$

Egiaza daitekeenez gero, abiadura kritikoa ardatzaren abiadura baino askoz handia da, erresonantzia sartuko ez danagatik.

### 3.5.6 ERRETENTZIO ERAZTUNAK

Kasu honetan, errodamenduak ardatzari lotzeko, erretentzio eraztunak erabiltzea aukeratu da. Zehazki, DIN 471 ardatzarako BENERI enpresaren erretentzio eraztunak aukeratu dira. Ikusi 10. irudia:



10. irudia. DIN 471 Beneri ardatzetarako erretentzio eraztunen ezaugarriak.

Ardatzetarako, erretentzio eraztunak ardatzaren diametroaren arabera aukeratu dira. Horregatik bi erretentzio eraztun (ardatzaren mutur bakoitzerako bat) mekanizatutako ardatzaren diametroaren arabera aukeratu dira. Hurrengo taulan aukeraturako erretentzio eraztunen ezaugarriak ikusi daitezke:

Dimensions in mm - Dimensions en mm - Medidas en mm

$d_1$	$s$	$d_3$	$a$ max	$b$ min	$d_5$	$d_2$	$m$ H13	$n$ min.	$F_{H1}$ N	$F_{H2}$ N	$g$	$F_{H3}$ N	$n_{ref}$ min <sup>-1</sup>	$K_g$					
205	5,00	0/-0,12	193,0	0,72 / -1,70	14,2	14,0	4,0	199,0	0/-0,720	5,15	9,0	317,00	611,00	6,0	61,30	1750	274,160	A5	A51
210	5,00	0/-0,12	198,0	0,72 / -1,70	14,2	14,0	4,0	204,0	0/-0,720	5,15	9,0	325,10	598,20	6,0	59,90	1835	284,440	A5	A51
215	5,00	0/-0,12	203,0	0,72 / -1,70	14,2	14,0	4,0	209,0	0/-0,720	5,15	9,0	332,00	585,00	6,0	58,50	1800	292,720	A5	A51
220	5,00	0/-0,12	208,0	0,72 / -1,70	14,2	14,0	4,0	214,0	0/-0,720	5,15	9,0	340,80	572,40	6,0	57,30	1620	301,860	A5	A51
225	5,00	0/-0,12	213,0	0,72 / -1,70	14,2	14,0	4,0	219,0	0/-0,720	5,15	9,0	349,00	559,00	6,0	56,00	1500	303,570	A5	A51
230	5,00	0/-0,12	218,0	0,72 / -1,70	14,2	14,0	4,0	224,0	0/-0,720	5,15	9,0	358,80	548,90	6,0	55,00	1445	314,540	A5	A51
235	5,00	0/-0,12	223,0	0,72 / -1,70	14,2	14,0	4,0	229,0	0/-0,720	5,15	9,0	364,00	537,00	6,0	53,80	1350	305,000	A5	A51
240	5,00	0/-0,12	228,0	0,72 / -1,70	14,2	14,0	4,0	234,0	0/-0,720	5,15	9,0	372,80	530,30	6,0	53,00	1305	341,160	A5	A51
245	5,00	0/-0,12	233,0	0,72 / -1,70	14,2	14,0	4,0	239,0	0/-0,720	5,15	9,0	380,00	515,00	6,0	51,50	1250	337,620	A5	A51
250	5,00	0/-0,12	238,0	0,72 / -1,70	14,2	14,0	4,0	244,0	0/-0,720	5,15	9,0	388,30	501,30	6,0	50,50	1190	357,930	A5	A51
255	5,00	0/-0,12	240,0	0,72 / -1,70	16,2	16,0	5,0	247,0	0/-0,810	5,15	12,0	525,00	557,00	6,0	55,70	1150	348,000	A5	A51
260	5,00	0/-0,12	245,0	0,72 / -1,70	16,2	16,0	5,0	252,0	0/-0,810	5,15	12,0	535,80	540,60	6,0	54,60	1320	413,500	A5	A51
265	5,00	0/-0,12	250,0	0,72 / -1,70	16,2	16,0	5,0	257,0	0/-0,810	5,15	12,0	546,00	536,00	6,0	53,70	1200	414,070	A5	A51

10. taula. Aukeraturako erretentzio eraztunak.

A sekzioko diametroarako (228,6 mm), ez dira existitzen DIN 471 normalizatutako erretentzio eraztunik, horregatik 230 mm-ko diametroarako erretentzio eraztun bat aukeratu da.

B sekzioko diametroarako (220 mm) badago DIN 471 normalizatutako erretentzio eraztun bat, eta hori aukeratu da.

### 3.5.7 TXABETEN KALKULUA

Abiadura txikiko ardatzaren eta engranai planeten eramailearen arteko momentu tortsoarearen transmisioa DIN 6885-A txabeta paraleloen bitartez egingo da.

Txabetek bi kausagatik huts egin dezakete: zapalketagariko hutsa edo ebakiduragariko hutsa. Horregatik kalkulu egokiak aipaturiko hutsetarako egingo dira eta txabeta luzera murriztaileagoa aukeratu da.

Normalean txabeten kalkulurako segurtasun koefizientea  $CS=1,1$  izan ohi da eta beraz aipaturiko koefizientea erabiliko da. B eta h, parametroak txabetaren zabalera eta altuera dira. Parametro hauek DIN 6885-A txabeta eta txabeteroentzako arauan zehaztuta datoz.

Kasu honetan abiadura txikiko ardatza diametro desberdinek osatutako ardatz bat da, baina jada lehen aipatu den bezala, txabeta B muturrean kokatuta joango da, hots, txabetaren bitartez planeta eramailerakin elkartuta joango den muturrean. Sekzio horrek 220 mm-ko kanpo diametroa du, eta diametro horren arabera b eta h parametroak 11. taulan adierazten dira:

b	2	3	4	5	6	8	10	12	14	16	18	20	22	25	28	32	36	40	45	50																				
h	2	3	4	5	6	8	7	8	8	9	7	10	7	11	8	12	8	14	9	14	10	14	11	18	12	20	22	25	28	32	32	32	36	40	45	50				
d1	6	8	10	12	12	17	17	22	22	30	30	38	38	44	44	50	50	58	58	65	65	75	75	85	85	95	95	110	110	130	130	150	170	200	230	260	290	330	380	440
d2	8	10	12	17	17	22	22	30	30	38	38	44	44	50	50	58	58	65	65	75	75	85	85	95	95	110	110	130	130	150	150	170	200	230	260	290	330	380	440	500

11. taula. Txabetaren b eta h dimentsioak ardatzaren diametroaren arabera.

Balioak:

$$b = 50 \text{ [mm]}$$

$$h = 28 \text{ [mm]}$$

Txabeten aukeraketa OPAC enpresaren katalogoaren bitartez egingo da. Katalogoaren arabera txabetak altzairukoak (F-114) izango dira hurrengo erresistentzia mekaniko minimoarekin:

$$\sigma_{yp} = 600 \text{ [MPa]}$$

Txabetaren gaineko indar jardulea:

$$F = \frac{T}{R} = \frac{522,34 \cdot 10^6}{220/2} = 4748545,45 \text{ [N]}$$

Luzeeraren kalkulua ebakidurara:

$$\tau = \frac{F}{b \cdot L} \leq \frac{\tau_{yp}}{CS} \rightarrow \frac{4748545,45}{50 \cdot L} \leq \frac{600/2}{1,1}$$

$$L \geq 348,22 \text{ [mm]}$$

Luzeeraren kalkulua zapalketara:

$$\sigma = \frac{F}{h \cdot L/2} \leq \frac{\tau_{yp}}{CS} \rightarrow \frac{4748545,45}{28 \cdot L/2} \leq \frac{600}{1,1}$$

$$L \geq 621,83 \text{ [mm]}$$

Ikus daitekeenez gero, zapalketagatiko hutsa ebakiduragatiko hutsa bainoaskoz murriztaileagoa da, horregatik zapalketagatiko hutsaren arabera txabeta antolamendu bat aukeratu behar izango da. Garrantzitsua da txabetetarako luzera maximo gomendagarriko ardatzaren diametroa 1.5 aldiz gaintu ez dezala, ardatzeko momentu tortsoarek deformazio gehiegi eraginez izateko.

$$L \leq 1,5 \cdot D = 1,5 \cdot 220 = 330 \text{ [mm]}$$

Kasu honetan, katalogoan aukeratzeko luzera maximoa  $b = 50 \text{ mm}$  eta  $h = 28 \text{ mm}$  txabetetarako  $L = 320 \text{ mm}$  da. Ikusi taula:



b	25	28	32	36	40	45	50	56	63	70	80	90	100			
h	9	14	10	16	11	18	12	20	22	25	28	32	36	40	45	50
70	• 65	80	• 75	90	• 85	100	• 95	110	• 120	140	160	180	200	220	250	280
80	70	90	80	100	90	110	100	• 120	125	160	180	200	220	250	280	320
90	• 75	100	• 85	110	• 95	125	• 110	125	• 130	180	200	220	250	280	320	360
100	80	110	90	125	100	140	• 120	140	140	200	220	250	280	320	360	400
